

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

USURBILGO UDALA

Iragarkia

Usurbilgo Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko martxoaren 9ko bilkuran Usurbilgo herrian etxebizitzak alokairuan hartzeko dirulaguntza oinarriak onartu zituen.

Oinarrien testu osoa argitaratzen da eta iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasi eta hogeitun egun baliouduneko epea ematen da interesatuek dirulaguntzak jasotzeko eskaera aurkez dezaten, dagokion dokumentazio osoarekin.

Erabaki hau finkoa da eta amaiera eman dio administrazio bideari.

ERREKURTSOAK

— Erabaki honen aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, erabakia berraztertzeko errekurtsua aurkez dezake urriaren 1eko Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen arabera Tokiko Gobernu Batzarraren aurrean. Eskatzaileak hilabeteko epea dauka horretarako: erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrerako hilabete osoa.

— Bestela, erabaki hau berraztertzeko eskatu orde, edo berraztertzeko errekurtsuaren erantzunaren aurka joko balu, zuzen zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez dezake. Interesatuak bi hilabeteko epea dauka horretarako, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Errekurtsua aurkeztekotan Gipuzkoako Kontentzioso-Administratiboetarako Epaitegira jo behar da. Bestaldetik, birjarpen errekurtsua erantzun gabe utziko balu Administrazioak, interesdunak edozein momentutan aurkeztu ahal izango du administrazioarekiko auzi-errekurtsua, berariazko araudiaren arabera presuntziozko ekintza gertatu den biharamunetik aurrera.

Usurbil, 2021eko martxoaren 17a.—Agurtzane Solaberrieta Mesa, alkatea. (1931)

Usurbilgo herrian etxebizitzak alokairuan hartzeko dirulaguntzak. Oinarri orokorrak.

I. XEDEA

1. artikulua. Xedea.

1. Laguntza hauen xedea eskatzaileen ohiko bizilekua den etxebizitzaren alokairuren zati bat ordaintzen laguntzea da; dagoneko etxebizitza errentan hartuta behar dute, eta horretarako bideratuta dauden gainerako laguntzetarako eskubiderik ez badute (Gaztelagun, Etxebizitzarako Prestazio Osagarria edo Gizarte Larraldietarako Laguntza).

2. 18 urtetik gorako pertsonak eskatu ahal izango dute dirulaguntza. 16 urtetatik gorako emantzipatutako pertsonak ere eskatu ahal izango dute dirulaguntza.

Oinarri hauetan ezarritako baldintzen arabera tramitatu eta emango da dirulaguntza.

AYUNTAMIENTO DE USURBIL

Anuncio

La Junta de Gobierno Local en sesión celebrada el día 9 de marzo de 2021 aprobó las bases de las ayudas para el alquiler de vivienda en el municipio de Usurbil.

Se publica el texto íntegro de las bases y se concede un plazo de veinte días hábiles a contar desde el día siguiente a su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa para que las personas interesadas presenten las solicitudes para la obtención de las ayudas junto con la documentación necesaria.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa.

RECURSOS

— Podrá interponer contra éste acuerdo el Recurso de Reposición correspondiente ante la Junta de Gobierno Local. Todo ello conforme a lo dispuesto en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. La persona solicitante podrá interponer dicho recurso en el plazo de un mes: contados a partir del día siguiente de la citada notificación.

— No obstante, alternativamente al recurso de reposición o en caso de oponerse al acuerdo de resolución del recurso de reposición, las personas interesadas podrán presentar directamente recurso contencioso-administrativo. El plazo para el mismo será de dos meses, a contar desde el día siguiente al de la notificación del acuerdo. En ese caso deberá recurrirse en el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Gipuzkoa. Por otra parte, si la administración no resolviera el recurso de reposición, las personas interesadas podrán interponer el mencionado recurso contencioso-administrativo, a partir del día siguiente a aquel en que, de acuerdo con su normativa específica, se produzca el acto presunto.

Usurbil, a 17 de marzo de 2021.—La alcaldesa, Agurtzane Solaberrieta Mesa. (1931)

Ayudas para el alquiler de vivienda en el municipio de Usurbil. Bases generales.

I. OBJETO

Artículo 1. Objeto.

1. Es objeto de estas ayudas contribuir a parte del pago del alquiler de la vivienda que constituya el domicilio habitual de la persona solicitante, que ya la tengan arrendada y no tengan derecho a otras ayudas similares en vigor (Gaztelagun, Prestación Complementaria para Vivienda o Ayuda de Emergencia Social).

2. Podrán solicitar la ayuda las personas mayores de 18 años. También podrán solicitar la ayuda las personas emancipadas mayores de 16 años.

La ayuda se tramitará y concederá en función de las condiciones establecidas en estas bases.

3. Diruz lagundu daitezkeen gastuak: diruz lagunduko diren alokairu-gastuak deialdia egiten den aurreko urteko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartekoak izango dira.

Araudi honetan jasotakoari jarraiki, alokairutik edo diruz lagundu daitezkeen kontzeptutik kanpo geldituko dira garaje eta komunitate eta administrazioko gastuak, bai eta kontribuzio edo zerga kontzeptupean sor daitezkeenak ere, dagokion kontratuan berariaz sartuta egonda ere.

2. artikulua. Onuradunak.

Pertsona fisikoek eskuratu ahal izango dute dirulaguntza. Eskaera norbanako gisa edota bizikidetzaren unitate batean bilduta aurkez daiteke.

1. Oinarri honen ondorioetarako, bizikidetzaren unitatea etxebizitza edo bizileku berean bizi diren pertsonen osatuko dute.

2. Eskatzaile guztiek oinarri hauetan eskatzen diren baldintzak bete beharko dituzte, bere kasuan bizikidetzaren unitatea osatzen duten kideen seme-alaba adingabeak salbu.

3. artikulua. Bete beharreko baldintzak.

a) Eskatzaileen adina:

18 urtetik gorakoak (edo 16tik gorakoak, emantzipatuta badaude).

b) Errolda:

Dirulaguntzen onuradun diren bizikidetzaren unitateko pertsona guztiek dirulaguntza jasoko duen etxebizitzaren erroldatuta egon beharko dira, dirulaguntza eskatu duten epealdian zehar.

c) Eskatzailea Usurbilgo udalerrian kokatutako etxebizitza libre baten errentamendu-kontratuaren titular izan beharko da (norberaren izenean edo errentakide gisa) eta hori izan beharko da bizikidetzaren unitate eskatzailearen ohiko eta etengabeko etxebizitza. Errentamendu-kontratua errentakide guztiek banan-banan orri guztietan sinatua izango dute. Errenta-kontratuaren iraupenak, gutxienez, 12 hilabetekoa izan beharko du.

d) Eskatzaileak ez du inolako familia-loturarik edukiko etxebizitzaren errentatzailearekin edo haren bizikidetzaren unitateko kideren batekin, odolkidetasun edo ahaidetasunezko bigarren mailaraino.

e) Errenta banku-transferentzia edo banku-agiri bidez ordaindu beharko da.

f) Eskatzaileetako edo bizikidetzaren unitatearen osatzen duten kideetako inork ere ez du izango bere jabetzako etxebizitzarik. Baldintza honetatik salbu geratzen dira herentzia edo dohaintza bidez eskuratutako jabetza osoko etxebizitza baten titularkide direnak, betiere titulartasun ehunekoa % 50etik gorakoa ez denean eta partaidetzen balio katastrala 75.000,00 euro baino gehiagokoa ez bada.

g) Bizikidetzaren unitateko diru-sarreraren muga urteko deialdian zehaztutako kopurua baino txikiagoa izango da.

h) Bizikidetzaren unitateko kideek ez dute udal ogasunarekin zorririk izango.

i) Eskatzailea edo bizikidetzaren unitatearen osatzen duten kideetako batek antzeko helburua duen beste dirulaguntzaren baten onuraduna izan badaiteke (administrazio honek edo besteren batek emana), ezin izango du dirulaguntza hau jaso.

j) Eskatzaileak edo bizikidetzaren unitatearen osatzen duten kideetako batek antzeko helburua duen beste dirulaguntzaren baten onuradun izateko eskubidea izanda ere (administrazio honek edo besteren batek emana), betebeharrak ez betetzeagatik edota dokumentazio faltsua aurkezteagatik hura ukatu egin bazaio, ezin izango du dirulaguntza hau jaso.

Edonola ere, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorren 13. artikuluan eta 887/2006 Errege Dekretuaren 18. artikulutik 29.era

3. Gastos subvencionables: Los gastos de alquiler subvencionables abarcan desde el 1 de enero del año en que se realice la convocatoria hasta el 31 de diciembre.

En base a lo establecido en este reglamento, quedarán exceptuados del alquiler y de los conceptos subvencionables los gastos de garaje y los de comunidad y administración, así como los que puedan establecerse en concepto de contribución o impuestos, incluso en el caso de que se mencionen expresamente en su correspondiente contrato.

Artículo 2. Personas beneficiarias.

Podrán ser beneficiarias de las ayudas las personas físicas, tanto a título individual como agrupadas en una unidad convivencial.

1. A los efectos de estas bases, constituyen una unidad convivencial dos o más personas que convivan en una misma vivienda o alojamiento.

2. Todas y cada una de las personas integrantes de la unidad convivencial, salvo los hijos e hijas menores de edad, deberán cumplir los requisitos que se exigen en estas bases.

Artículo 3. Requisitos.

a) Edad de la persona solicitante:

Mayores de 18 años (o mayores de 16, si están emancipados).

b) Empadronamiento:

Todas las personas de la unidad convivencial que resulten beneficiarias de las ayudas deberán estar empadronadas en la vivienda objeto de la subvención, con carácter previo al vencimiento del plazo de solicitud de ayudas.

c) Ser titular de un contrato de arrendamiento, a título individual o como coarrendataria, de una vivienda libre ubicada en el municipio de Usurbil, que deberá constituir el domicilio habitual y permanente de la unidad convivencial solicitante. El contrato de arrendamiento estará firmado por todas las personas arrendatarias en todas las hojas. El contrato de arrendamiento deberá tener una duración mínima de 12 meses.

d) No tener vínculos familiares hasta segundo grado de consanguinidad o afinidad con la persona arrendadora de la vivienda o con cualquiera de las personas que conforman la unidad convivencial de la persona arrendadora.

e) Abonar la renta mediante transferencia bancaria.

f) Ninguna persona solicitante o componente de la unidad convivencial poseerá vivienda alguna en propiedad, salvo en el supuesto de que sea cotitular de una o varias viviendas adquiridas por herencia o donación, en las que ninguno de los porcentajes de cotitularidad supere el 50 % y el valor catastral de las participaciones en vivienda no supere los 75.000 euros.

g) El límite de ingresos de la unidad convivencial será menor a la cantidad establecida en la convocatoria anual.

h) Las personas que conforman la unidad convivencial no podrán tener deudas con la hacienda local.

i) No podrá ser beneficiaria de esta subvención la persona solicitante o cualquiera de las personas integrantes de la unidad convivencial que sea beneficiaria de otras subvenciones con fines análogos (concedidas por esta u otras administraciones).

j) No podrá ser beneficiaria de esta subvención la persona solicitante o cualquiera de las personas integrantes de la unidad convivencial que, teniendo derecho a ser beneficiaria de cualquier otra subvención con fines análogos (concedida por esta u otra Administración), le haya sido denegada por incumplimiento de obligaciones o presentación de documentación falsa.

No obstante, para la consideración de persona beneficiaria habrá de acreditarse el cumplimiento de las condiciones estable-

bitartekoetan jasotakoak bete beharko dituzte dirulaguntzaren onuradunek (Administrazio Publikoek ematen dituzten dirulaguntzen arauetan ezarritako baldintzak betetzen ote dituzten egiaztatu beharko da).

Bizikidetz-unitatearen baliabideak zehazteko, eskatzailearen eta aipatu unitateko gainerako pertsonen baliabide guztiak konputatuko dira; hau da: etekin nahiz ondarea.

1. Salbuespen egoerak.

Dirulaguntza eskatzeko aukera izango dute eskatzaile hauek:

* Jabetzako etxebizitzarekin lotutako salbuespenak:

– Bananduta edo dibortziatuta daudenean. Kasu horretan, epai judiziala eta hitzarmen arau-emalea aurkeztu beharko dira, etxebizitzaren erabilera beste ezkontideari eman zaiola egiaztatzeke.

– Ohiko etxebizitzatik etxe-gabetu dituztenean. Kasu horretan, etxe-gabetze erabakia duen epaia aurkeztu beharko da.

– Indarkeria matxistako edo familia barneko indarkeriako kasu bat denean. Udaleko Gizarte Zerbitzuek egiaztatu beharko dute egoera hori.

– Bere etxebizitza erabili ezin dutenean hondamendiren bat gertatu delako (uholdea, sutea, eta abar) edota suntsituta dagoela legez aitortu izan den kasuetan.

4. artikulua. *Etxebizitzek bete beharreko baldintzak.*

1. Diruz lagunduko den etxebizitza Usurbilgo udalerrian egon behar da.

2. Etxebizitza Udal erroldan eta katastroan altan emanda egon behar da.

3. Etxebizitzak hirigintza onarpena izan behar du.

5. artikulua. *Baztertzak.*

Honako kasuetan, ez dira egindako eskaerak onartuko:

- a) Sustapen publikoko babes ofizialeko etxebizitzak badira.
- b) Azpierrentamenduak badira.
- c) Logelen alokairuak badira (logela eskubideak).
- d) Helburu turistikoa duten etxebizitzak badira.
- e) Etxebizitza gisa erabilitako lokalak badira.
- f) Bizigune programarean barruan dauden alokairu etxebizitzak badira.

Ez da onartuko urtebete baino iraupen txikiagoa duen kontraturik.

6. artikulua. *Bateraezintasunak.*

Oinarri hauen arabera emandako dirulaguntzak helburu berekin ematen diren beste dirulaguntzekin bateraezina izango dira:

- 1. Gaztelagun Programaren alokairurako laguntzarekin.
- 2. Diru-sarrera bermatzeko errenta (DSBE) eta administrazio publikoen gizarteratze- politiketatik eratorritako beste edozein errentarekin.
- 3. Etxebizitzarako prestazio osagarria (EPO) eta etxebizitzarako prestazio ekonomikoa (EPE) dirulaguntzekin.
- 4. Gizarte-larrialdietarako laguntzekin (GLL), Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 44. artikulua (2.a) atalean aipatutako alokairu- gastuei loturik daudenean.

Halaber, oinarri hauen arabera emandako dirulaguntza ezin izango da bateratu honako hauek:

- 5. Errentamenduko babes publikoko etxebizitzabat izatearekin.

cidas en el artículo 13 de la Ley General de Subvenciones 38/2003 y 18 a 29 del Real Decreto 887/2006 y demás normativa para la concesión de subvenciones por parte de las Administraciones Públicas.

Para determinar los recursos de la unidad convivencial se computarán todos los recursos (rendimientos y patrimonio) de quien solicita la ayuda, así como del resto de personas que conforman la unidad convivencial.

1. Situaciones excepcionales.

Podrán optar a las ayudas las siguientes personas:

* Excepciones referentes a la titularidad de la vivienda:

– En caso de separación o divorcio. En este caso, deberá presentarse sentencia judicial y convenio regulador que acredite que se ha atribuido el uso de la vivienda al o a la cónyuge.

– En caso de desahucio de su vivienda habitual. En este caso, deberá presentarse la sentencia condenatoria de desahucio.

– En caso de violencia machista o violencia familiar. Esta situación deberá ser acreditada por los servicios sociales del ayuntamiento.

– En caso de no poder utilizar su vivienda por causa de una catástrofe (inundación, incendio, etc.) o en los casos que se haya atestado legalmente que se encuentra en estado ruinoso.

Artículo 4. *Requisitos que deberán cumplir las viviendas.*

1. La vivienda objeto de ayuda deberá estar situada en el municipio de Usurbil.

2. La vivienda debe estar dada de alta en el Padrón Municipal y en el catastro.

3. La vivienda deberá tener reconocimiento urbanístico.

Artículo 5. *Exclusiones.*

No se aceptarán solicitudes que se encuentren en estos casos:

- a) Cuando se trate de viviendas de protección oficial de promoción pública.
- b) Subarriendos.
- c) Alquileres de habitaciones (derechos de habitación).
- d) Viviendas de uso turístico.
- e) Locales utilizados como vivienda.
- f) Viviendas de alquiler incluidas en el programa Bizigune.

No se admitirán contratos de alquiler con duración inferior a un año.

Artículo 6. *Incompatibilidades.*

Las ayudas concedidas con arreglo a estas bases serán incompatibles con cualesquiera otras que pudieran concederse para la misma finalidad:

- 1. La ayuda al alquiler del Programa Gaztelagun.
- 2. Renta de garantía de ingresos (RGI) y cualquier otra renta que provenga de políticas de inserción social de las Administraciones Públicas.
- 3. Prestación complementaria de vivienda (PCV) y prestación económica de vivienda (PEV).
- 4. Ayudas de emergencia social (AES) relacionadas con los gastos de alquiler citados en el apartado 2.a) del artículo 44 de la Ley 18/2008 de 23 de diciembre, para la Garantía de Ingresos e Inclusión Social.

Asimismo, la subvención concedida con arreglo a las presentes bases será incompatible con:

- 5. El disfrute de una vivienda de protección pública en arrendamiento.

6. Errentamenduko etxebizitza pribatu bat izatearekin Merkatu Libreko Alokairurako Bitartekaritzako asap (Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa) programaren bidez edo Etxebizitza Hutsen Bizigune Programaren bidez.

II. ESKAERAK

7. *artikulua. Eskabideak aurkezteko epea eta modua.*

Eskariak, urteroko dirulaguntza deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta 20 egun balioduneko epean aurkeztu beharko dira, biharamunetik kontatzen hasita.

Laguntza hauek jaso nahi dituzten pertsonak, deialdian jasotakoari jarraiki, eskaera-orri ofiziala behar bezala beteta aurkeztuko dute. Eskaera-orria Usurbilgo Udalaren web-orrian eskuragarri izango dute. Eskabidea Udalaren erregistroan aurkeztuko ahal izango da.

8. *artikulua. Eskabidearekin batera aurkeztu behar diren agiriak.*

Aurkeztu beharreko dokumentazioa hau izango da:

1. Eskaera-orri ofiziala, behar bezala beteta eta sinatuta.

2. Laguntza eskatzen duen pertsona bakoitzaren NAREN, pasaportearen edo egoitza txartelaren fotokopia. Adin txikikorik balez, Familia Liburuaren fotokopia edo jaiotza-ziurtagiria ere aurkeztu beharko da. Dokumentazio hori beharrezkoa izango da, kasu guztietan, senidetazuna egiaztatzeko, baldin eta ondorengoa alegatu bada.

3. Etxebizitzan bizi diren kideen izen-abizenak eta NAREN, pasaportearen edo egoitza txartelaren zenbakia, bizikidetzaren berekoak izan ala ez, Udalak Biztanleen Udal Erroldan egiaztatzea.

4. Etxebizitzaren alokairu-kontratuaren kopia (diruz lagundu daitekeen epealdikoa).

5. Alokairu-kontratua Euskal Autonomia Erkidegoko hirifinken errentamendu-kontratuen erregistro edo fidantza gordailuan utzi izanaren frogagiria.

6. Alokairu kontratuaren baitan egindako hileko ordainketa agiriak. (Onuradunaren izenean agindutako banku transferentziaren agiria).

7. Eskatzailearen kontu korrontearen titularitatea egiaztatzen duen agiria.

8. Etxebizitza baten titularkide izanez gero, aurkeztu beharreko agiriak:

– Herentzia kasuan, herentziaren onarpen-agiria eta etxebizitza-partaidetzaren eskritura.

– Dohaintza-kasuan, dohaintza-eskritura.

– Bi kasuetan, partaidetza saldu izan balitz: eskualdatzearen eskritura.

9. Bizikidetzaren unitateko kide guztien ekitaldikoa diru-sarrerara eta zergen gaineko honako dokumentu hauek:

9.1. Lan-bizitzari buruzko ziurtagiria, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiak igorria.

9.2. Diru sarreraren agiriak (nominak, aparteko ordainsariak, etab.) edo norberaren kontura lan egiten duenak Gizarte Segurantzako kuotak ordaindu izanaren ordainagiriak.

9.3. PFEZaren aitortpena egitera behartua ez dagoenak honako hauek eman beharko ditu:

– Besteren konturako langileak badira: kontzeptu guztiengatik jasotako diru-sarrerara gordin guztiei buruzko dokumentua, ekitaldi horri buruzkoa eta enpresak edo enplegu-emaileak emandakoa (10T).

6. El disfrute de una vivienda privada en arrendamiento a través del Programa de Intermediación en el Mercado de Alquiler de Vivienda Libre ASAP (Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa) o del Programa de Vivienda Vacía Bizigune.

II. SOLICITUDES

Artículo 7. Solicitud y plazo de presentación.

El plazo de presentación de solicitudes será de veinte días hábiles contados a partir del día siguiente al de la publicación de la convocatoria anual de subvenciones en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Las personas interesadas en acogerse a estas ayudas, atendiendo a lo establecido en la convocatoria, presentarán la solicitud oficial debidamente cumplimentada. El impreso de solicitud estará disponible en la página web municipal. La solicitud podrá presentarse en el registro del Ayuntamiento.

Artículo 8. Documentación a presentar junto con la solicitud.

Habrà que presentar la siguiente documentación:

1. Impreso de solicitud, debidamente cumplimentado y firmado.

2. Fotocopia del DNI, pasaporte o tarjeta de residencia de cada una de las personas demandantes de la ayuda. En el caso de existir menores de edad, se aportará, además, fotocopia del Libro de Familia o certificado de nacimiento. Este último documento será preciso, en todo caso, para acreditar la filiación, en caso de alegar descendencia.

3. Nombre y apellidos y número de DNI, pasaporte o permiso de residencia de las personas que residan en la vivienda, sean o no parte de la misma unidad convivencial, a fin de que el Ayuntamiento pueda certificarlo en el Padrón Municipal de Habitantes.

4. Copia del contrato de arrendamiento de la vivienda, en vigor, y dentro del plazo subvencionable.

5. Certificado de inscripción del contrato de arrendamiento en el registro de contratos de arrendamiento de fincas urbanas de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

6. Justificantes de los pagos mensuales realizados en el marco del contrato de alquiler (justificante de transferencia bancaria ordenada por la persona beneficiaria).

7. Documento que acredite la titularidad de la cuenta corriente de quien solicita la ayuda.

8. En caso de ser cotitular de una vivienda, será necesaria la aportación de:

– En caso de herencia, aceptación de herencia y escritura de partición de la vivienda.

– En caso de donación, escritura de donación.

– En ambos casos, en caso de venta de la participación: escritura de transmisión.

9. Los siguientes documentos sobre ingresos e impuestos correspondientes al ejercicio de todas las personas que forman la unidad convivencial:

9.1. Certificado de la vida laboral expedido por la Tesorería General de la Seguridad Social.

9.2. Justificantes de los ingresos (nóminas, pagas extras) o, en caso de trabajar por cuenta propia, el recibo de los pagos a la Seguridad Social.

9.3. Quien no tenga obligación de declarar el IRPF, deberá aportar los siguientes documentos:

– En el caso de personas empleadas por cuenta ajena, documento expedido por la empresa o parte empleadora sobre la totalidad de los ingresos brutos percibidos por todos los conceptos correspondiente a dicho ejercicio (10T).

– Pentsiodunak edo bekadunak, prestazioak edo subsidioak jasotzen dituztenak badira (Zerbitzu Sozialetako laguntzak barne); ekitaldi honetako laguntza horien ziurtagiria.

– Langabezian egonik prestazioa jasotzen ez duenak Lanbidek igorritako inskripzio-aldien txostena izeneko ziurtagiria.

10. Administrazioarekin Gizarte Segurantzako betebeharrak eta Zerga obligazioak egunean daudela adierazten duen zinpeko aitorpena.

11. Beste diru-sarrera batzuk (zenbatekoa adieraziko da) izanez gero eta/edo beste erakundeetan dirulaguntza eskatuz gero, hori adierazten duen zinpeko aitorpena.

12. Orokorrean edonolako dirulaguntzak jasotzea eragozten duen egoeran ez dagoela adierazten duen zinpeko aitorpena. Halaber, oinarri hauen 3. eta 4. artikuluetan zehaztutako baldintzak betetzen dituela zinez aitortu beharko dute bai eskatzaileak bai eta bizikidetz-unitate bereko adin-nagusiko pertsona guztiek ere.

13. Banaketa edo dibortzioa dagoenean, hitzarmen arau-emailea eta epai judiziala.

14. Etxe-gabetzea denean, etxe-gabetzea erabaki duen epaia.

15. Indarkeria matxistako edo familia barneko indarkeria kasu bat denean, oinarritzko gizarte-zerbitzuen txostena.

16. Hondamendia denean, Usurbilgo Udaleko zerbitzuek frogagiri gisa emandako txostena.

Suntsitze-egoeran dauden etxebizitzaren kasuan, hori aitortzen duen legezko agiria.

17. Dirulaguntza emateko betebeharrak kontuan izanik, baliagarria izan daitekeen beste edozein agiri.

Gastuak egiaztatzeko fakturak aurkeztuko dira, edo merkataritzako trafiko juridikoan froga balio bera duten edo administrazioaren aurrean eraginkortasuna duten bestelako agiriak.

Eskatzaileek berariazko baimena eman diezaieke Usurbilgo Udaleko udal zerbitzuei, eskumena duten erakundeek laguntzen onuradun izateko bete behar diren baldintza guztiak betetzeko datuak bildu ditzaten, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5ko 3/2018 Lege Organikoko 6. artikuluan ezarritakoa betez. Erroldako datuak Udalak jasoko ditu zuzenean. Baimena eman ezean, dokumentazio guztia aurkeztu beharko dute eskariarekin batera.

Arau bera ezarriko da Ogasunari dagokion informazio honetan (betetako azken zerga-ekitaldikoa):

- PFEZ: Aitorpenaren laburpena.
- Ondasun higiezinak: Hiri etxebizitzaren titularrak.
- Ondasun higiezinak: Gipuzkoatik kanpoko etxebizitzak.

9. artikulua. Akatsak zuzentzea.

Eskabideak edo harekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioak akatsen bat baldin badu edo osatu gabe baldin badago, interesatuei hamar laneguneko epea emango zaie, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, antzemandako hutsak konpon ditzaten (urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1 artikulua).

Emandako epea amaitu eta aurkitutako akatsak konpondu ezean, eskaera bertan behera utzi dutela iritziko da eta prozedura artxibatuko da, Administrazio Publikoaren Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 94. artikuluan xedatutakoarekin bat ebazpena eman eta gero.

– En el caso de pensionistas o personas que perciban becas, prestaciones o subsidios (incluido todo tipo de prestación de los servicios sociales de Ayuntamiento), el certificado de las mismas correspondiente a dicho ejercicio.

– En caso de estar en situación de desempleo y no cobrar la prestación, el certificado de periodos de inscripción expedido por Lanbide.

10. Declaración jurada en la que se haga constar que se halla al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias y de la Seguridad Social frente a la Administración.

11. Declaración jurada en la que se haga constar, en su caso, la existencia de otros ingresos (se especificará su cuantía) y/o solicitudes de subvención realizadas ante otras instituciones.

12. Declaración jurada de no hallarse incurso en ninguna situación que le impida recibir subvenciones de cualquier tipo con carácter general. Asimismo, tanto quien solicita como todas las personas adultas que componen la unidad convivencial deberán presentar declaración jurada de que cumplen con los requisitos establecidos en los artículos 3 y 4 de estas bases.

13. En caso de separación o divorcio, convenio regulador y sentencia judicial.

14. En caso de desahucio, sentencia condenatoria de desahucio.

15. Cuando se trate de un caso de violencia machista o familiar, informe de los servicios sociales.

16. En caso de catástrofe, informe emitido como prueba por los servicios del Ayuntamiento de Usurbil.

En el caso de viviendas en situación de ruina, documento legal que así lo acredite.

17. Cualquier otro documento que pueda resultar válido teniendo en cuenta las obligaciones para la concesión de la subvención.

Se presentarán facturas acreditativas de los gastos u otros documentos de valor probatorio equivalente en el tráfico jurídico mercantil o de eficacia administrativa.

Las personas solicitantes podrán autorizar expresamente a los servicios municipales del Ayuntamiento de Usurbil a recabar de los organismos competentes los datos necesarios para constatar el cumplimiento de todas las condiciones requeridas para ser beneficiario de las ayudas, a tenor de lo exigido en el artículo 6.º de la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Persona y Garantía de los Derechos Digitales. Los datos de empadronamiento serán recabados directamente por el Ayuntamiento. En caso de no conceder la autorización, junto con la solicitud deberán presentar toda la documentación.

Esta misma regla se aplicará a la siguiente información relativa a la Hacienda Foral (último ejercicio fiscal vencido en el momento de presentación de la presente solicitud):

- IRPF: Resumen de la declaración.
- Bienes Inmuebles: titular de viviendas urbanas.
- Bienes inmuebles: viviendas fuera de Gipuzkoa.

Artículo 9. Subsanación de errores.

Cuando la instancia de solicitud o la documentación preceptiva que la acompaña adolezca de algún error o sea incompleta, se otorgará a las personas interesadas un plazo de diez días, contados a partir del día siguiente al de la notificación del requerimiento, para subsanar los defectos detectados (artículo 68.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre).

Transcurrido el plazo concedido sin que se subsanen los defectos detectados, se les tendrá por desistidos de su petición, archivándose el procedimiento, previa resolución que será dictada en los términos del artículo 94 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre.

10. artikulua. Onuradunaren betebeharrak.

Dirulaguntzetarako Lege Orokorraren 14. artikuluan jasoak datozenaz gain, onuradunak honako hauek ere bete beharko ditu:

- Dirulaguntza oinarri hauetan jasotzen diren helburuak betetzeko erabiltzea.
- Eskatzen zaion informazio osagarri guztia Usurbilgo Udalari aurkeztea.
- Dirulaguntza ematean kontuan izandako edozein gorabehera –hala objektiboa, nola subjektiboa– aldatzen bada, horren berri ematea.

III. DIRULAGUNTZAK EMATEA

11. artikulua. Dirulaguntzaren zenbatekoa.

1. Dirulaguntzaren zenbatekoa errentaren arabera finkatuko da: hileko errenta konputagarriaren portzentaje bat izango da, eskaera bakoitzeko hileko hainbat euroko gehieneko muga izango du, eta gehenez 12 hilabeterako emango da, diru-sarreen arabera.

2. Dirulaguntzen gehieneko kopuruak urteko deialdietan zehaztuko dira.

3. Diruz lagundu daitekeen zenbatekoa kuantifikatzeko, kontuan hartuko da oinarri hauetako 1.3. artikuluan bazterketei buruz ezarritakoa.

4. Alokairu partekatua denean, eskatzaile bakoitzari emateko laguntza kalkulatzeko, etxebizitza osoaren hileko errenta zatituko da kontratuko titularren kopuruaren artean.

5. Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoak ezingo du gainditu hileko errentaren % 50a.

6. Alokairu kontratu bakoitzari ematen zaion laguntzaren zenbatekoak ezingo du, inola ere, etxebizitzarako prestazio ekonomikorako (EPE) ezarri den gehieneko muga gainditu.

Eskarien zenbateko osoak dagokion aurrekontuko partidan esleitutako zenbatekoa gainditzen badu, ondorengo doitzea egingo da: lehenik zenbateko hori alokairu gastuaren % 20ko dirulaguntza jasoko dutenen artean banatuko da proportzionalki (gehienez % 10 arte). Ondoren, beharrezkoa bada, gainditutako zenbatekoa alokairu gastuaren % 30eko dirulaguntza jasoko dutenen artean banatuko da proportzionalki (gehienez % 10 arte). Jarraian, alokairu gastuaren % 40ko dirulaguntza jasoko dutenekin egingo da eta, azkenik % 50 jasoko dutenekin.

12. artikulua. Dirulaguntzaren ordainketa.

Dirulaguntzaren ordainketa aldi bakarrean egingo da, deialdia ebatzi ondoren.

13. artikulua. Finantzazioa.

Alokairurako dirulaguntzak finantzatzeko diru-baliabideak Usurbilgo Udalaren Aurrekontu Orokorretan helburu horretarako ezarritako aurrekontu-kredituak erabiliko dira. Urteko deialdian zehaztuko da partida eta kopurua.

Emandako laguntza guztien batura ezingo da izan horretarako onartutako aurrekontu-kreditua baino handiagoa.

IV. PROZEDURA

14. artikulua. Laguntzak emateko irizpideak.

Dirulaguntzak emateko oinarriko irizpideak oinarri hauen 2., 3. eta 4. artikuluetan zehaztuak daude. Ezarritako baldintzak eta bete beharrak betetzen direla egiaztatu ondoren, dagozkion dirulaguntzak oinarri arautzaile hauetan ezarritako baldintzetan emango dira.

Artículo 10. Obligaciones de las personas beneficiarias.

Además de lo dispuesto en el artículo 14 de la Ley General de Subvenciones, son obligaciones de la persona beneficiaria:

- Utilizar la subvención para los destinos concretos establecidos en estas bases.
- Deberá aportar al Ayuntamiento de Usurbil cuanta información complementaria le sea requerida.
- Comunicar la modificación de cualquier circunstancia tanto objetiva como subjetiva que hubiese tenido en cuenta para la concesión de la subvención.

III. CONCESIÓN DE LAS AYUDAS

Artículo 11. Cuantía de la ayuda.

1. La cuantía de la subvención se establecerá según la renta: será un porcentaje de la renta computable mensual, tendrá un límite máximo de tantos euros/mes por solicitud, con un periodo máximo de 12 meses, en función de los ingresos obtenidos.

2. Las cuantías máximas de las subvenciones se determinarán en las convocatorias anuales.

3. Para la cuantificación de la cantidad subvencionable, se estará a lo dispuesto sobre las exclusiones en el artículo 1.3 de las presentes bases.

4. Cuando se trate de un alquiler compartido, la ayuda a conceder a cada solicitante se calculará dividiendo la renta mensual de la vivienda entre el número de titulares que consten en el contrato.

5. El importe de la ayuda concedida a cada contrato de alquiler no podrá superar el 50 % de la renta mensual.

6. En ningún caso la cuantía de la ayuda por renta excederá del límite máximo establecido para la Prestación Económica de Vivienda (PEV).

En el caso de que el importe total de las solicitudes supere la cantidad consignada en la partida presupuestaria correspondiente, se podrá proceder al prorrateo de dicha cantidad de la manera siguiente: en primer lugar, entre todas las subvenciones que percibirán ayudas del % 20 del gasto de alquiler (hasta un 10 %). Posteriormente, si es necesario, entre todas las subvenciones que percibirán ayudas del % 30 del gasto de alquiler (hasta un 10 %). A continuación, entre todas las subvenciones que percibirán ayudas del % 40 del gasto de alquiler y, finalmente, con la que percibirán el 50 %.

Artículo 12. Abono de las ayudas.

El abono de la subvención se realizará en un solo pago, una vez resuelta la convocatoria.

Artículo 13. Financiación.

Los recursos económicos destinados para financiar las ayudas para el alquiler procederán de los correspondientes créditos presupuestarios consignados al efecto en los Presupuestos Generales del Ayuntamiento de Usurbil. En la convocatoria anual se determinará la partida y el número.

La suma de todas las ayudas concedidas no podrá superar el crédito presupuestario aprobado con ese fin.

IV. PROCEDIMIENTO

Artículo 14. Criterios para la concesión de las ayudas.

Los criterios básicos para la concesión de las ayudas están dispuestos en los artículos 2, 3 y 4 de las presentes bases. Una vez confirmado el cumplimiento de las condiciones y las obligaciones establecidas, se concederán las correspondientes subvenciones en las condiciones establecidas en estas bases normativas.

15. artikulua. Prozedura.

Hirigintza arloko teknikariak dirulaguntza eskariak ebaluatu ondoren, txostena egin eta Hirigintza batzordera eramango du, honek txostena kontuan hartuta, bere iritzia eman dezan.

Ondoren, Dirulaguntzen Batzorde Orokorrek ebazpen proposamena egingo du.

Jarraian, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da ebazpen proposamenaren inguruko iragarkia eta interesatuak 10 eguneko epea izango du alegazioak egiteko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN iragarkia argitaratzen den biharamunetik kontatzen hasita.

Azkenik, Tokiko Gobernu Batzarrak emango du dirulaguntzei buruzko behin betiko ebazpena. Behin betiko ebazpena Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da.

Udaleko iragarki taulan eta www.usurbil.eus web orrian ere behin behineko proposamenaren eta behin betiko ebazpenaren berri emango da.

16. artikulua. Dirulaguntzen Batzorde Orokorrek.

Dirulaguntzen Batzorde Orokorra modu honetara osatuko da:

– Udalean dirulaguntzak banatzen dituen Batzorde bakoitzeko lehendakaria eta teknikaria.

– Alkatea.

– Udal idazkaria.

– Udal kontuhartzailea.

Dirulaguntza Batzorde Orokorren funtzioak, besteak beste, hauek izango dira:

– Udal dirulaguntzak banatzeko irizpideak bateratzea.

– Dirulaguntzen legezkotasuna bermatzea.

– Dirulaguntza bikoizketak ekiditea.

17. artikulua. Iraungitzea.

Honako hauek izango dira dirulaguntza iraungitzeko arrazoiak:

a) Dirulaguntza emateko arrazoi izan diren baldintzak ez betetzea.

b) Pertsona onuradunak uko egitea.

c) Pertsona onuraduna hiltzea.

d) Emandako datuetan edo eskabideari erantsitako erantzukizunpeko adierazpenetan iruzur egitea.

V. DIRULAGUNTZAREN KONTROLA

18. artikulua.

1. Usurbilgo Udalak onuradunei eskatu ahal izango die egokitza jotako agiriak aurkez ditzatela.

2. Udalak dituen datu baseak kontsultatu ahal izango ditu dirulaguntzaren oinarrietan adierazitako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko helburu bakarrekin.

3. Udalak eskubidea izango du, beharrezkoa ikusiko balu, dirulaguntza honen onuradunen etxebizitzetan kontserbazio eta bizigarritasun egoerak gainbegiratzeko. Horretarako, alde aurretik esleipendunei jakinaraziko die Udalak zein egunetan eta zein ordutan duen ikuskatzea egiteko asmoa.

4. Usurbilgo Udalak, bere fiskalizazio-eginkizunak betetzeko informaziorik eskatuz gero, dirulaguntzen onuradunek eman egin beharko diote.

Artículo 15. Procedimiento.

El personal técnico de Urbanismo, tras valorar las solicitudes, redactará el informe y lo remitirá a la Comisión de Urbanismo para que esta emita su veredicto, teniendo en cuenta el informe.

A continuación, la Comisión General de Subvenciones realizará su propuesta de resolución.

Seguidamente, el anuncio de la propuesta de resolución será publicado en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, disponiendo las personas interesadas de un plazo de 10 días para la presentación de alegaciones, a partir del día siguiente al de la publicación.

Finalmente, en Junta de Gobierno Local se dictará la resolución definitiva relativa a dichas subvenciones. La resolución definitiva se publicará en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

En el tablón de anuncios del ayuntamiento y en la página web www.usurbil.eus también se dará cuenta de la propuesta provisional y de la resolución definitiva.

Artículo 16. Comisión General de Subvenciones.

La Comisión General de Subvenciones está compuesta por:

– Presidente o presidenta y técnico o técnica de cada comisión que concede subvenciones en el Ayuntamiento.

– Alcalde o alcaldesa.

– Secretario o secretaria municipal.

– Interventor o interventora municipal.

Las funciones de la Comisión General de Subvenciones son las siguientes:

– Unificar los criterios para la concesión de subvenciones municipales.

– Garantizar la legalidad de las subvenciones.

– Evitar duplicidades en la subvención.

Artículo 17. Extinción.

Causas para la extinción de la ayuda:

a) El incumplimiento sobrevenido de los requisitos que dieron lugar a la obtención de la ayuda.

b) La renuncia de la persona beneficiaria.

c) El fallecimiento de la persona beneficiaria.

d) Falsedad acreditada en los datos aportados o en las declaraciones responsables incluidas en la solicitud.

V. CONTROL DE LA SUBVENCIÓN

Artículo 18.

1. El Ayuntamiento de Usurbil podrá requerir a las personas beneficiarias la presentación de cuantos documentos estime oportunos.

2. El Ayuntamiento podrá consultar las bases de datos que dispone con el único fin de certificar el cumplimiento de las condiciones establecidas en las bases de las ayudas.

3. El Ayuntamiento tendrá derecho, si lo estima necesario, a supervisar las situaciones de habitabilidad y conservación en las viviendas de quienes se benefician de estas ayudas. Para ello, el Ayuntamiento informará previamente a los y las adjudicatarios la fecha y la hora en que prevé realizar dicha inspección.

4. Con el fin de que el Ayuntamiento de Usurbil pueda llevar a cabo las labores de fiscalización, quienes se benefician de esta ayuda tienen la obligación de aportar información, en el caso de que les sea requerido.

VI. ARGITARA EMATEA

19. artikulua.

38/2003 Legeak, azaroaren 17koak, 18. artikuluan, 887/2006 Errege Dekretuak, uztailaren 21ekoak, 30. artikuluan eta 19/2013 Legeak, abenduaren 9koak, 8 eta 9. artikuluetan, ezarzen dutena kontuan izanda, oinarri arautzaile hauei jarraiki ematen diren laguntzak Udaleko iragarki-oholean eta webgunean argitaratuko dira, eta halaber gardentasuna eta informazio publikoaren eskuragarritasuna bermatzeko ezarritako tresnetan.

Gainera, dirulaguntzaren zenbatekoa 3.000 €-koa edo handiagoa bada, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN ere argitaratuko da.

Beti errespetatuko da datu pertsonalak babesteko legeak xedatutakoa, eta, horregatik, datu pertsonalak modu disoziatuan emango dira.

VI. OINARRIEN INTERPRETAZIOA ETA HIZKUNTZA-OHARRA

20. artikulua. Hizkuntza-oharra.

Euskarazko eta gaztelaniazko testuen artean kontraesanik edo inkoherentziarik antzeman ez gero, euskarazko testuak izango du balioa.

21. artikulua. Oinarrien interpretazioa.

Dirulaguntza emateko ardura duen organoari dagokio oinarri hauen interpretazioaren harira zalantzarik sortzen bada haiei buruz erabakitzea.

22. artikulua. Araudi osagarria.

Deialdi honek ezartzen ez duenari dagokionez, aintzat hartuko da Usurbilgo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzak ezartzen duena eta Herri Administrazioetako Dirulaguntzak arautzen dituen 38/2003 Legearen xedapenak.

I. ERANSKINA

Usurbilgo herrian etxebizitzak alokairuan hartzeko dirulaguntza deialdia 2021 urterako.

1. Xedea eta dirulaguntzaren epearen iraupena.

Laguntza hauen xedea eskatzaileen ohiko bizilekua den etxebizitzaren alokairuren zati bat ordaintzen laguntzea da.

Herritarrei etxebizitzak alokairuan hartzeko dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileen 1. artikuluan zehaztutakoa errespetatuko da.

Deialdi honetan eta berau arautzen dituen oinarri arautzaileetan ezarritako baldintzen arabera tramitatu eta emango da dirulaguntza.

Urteko deialdi honi dagokionez, diruz lagunduko diren alokairu-gastuak 2019ko irailaren 1etik 2020ko abenduaren 31 bitartekoak izango dira.

2. Partida eta aurrekontuko diru-hornidura eta dirulaguntzak banatzeko irizpideak.

Deialdi honetan emango diren dirulaguntzen zenbatekoa gutxira 30.000 eurokoa izango da, eta hori 2021. urterako Usurbilgo Udalaren Aurrekontu Orokorren partidetatik egingo da: 1.6000.481.151.00.01.2021.

Dirulaguntzak emateko oinarriko irizpideak oinarri arautzaileetan xedatutakoak izango dira. Irizpide nagusia hau izango da:

— Onuradunei, urteko deialdiaren tauletan azaltzen diren gehienezko dirulaguntzen kopuruak esleituko zaizkie.

VI. PUBLICIDAD

Artículo 19.

Tomando en cuenta lo establecido en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, en su artículo 18, el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, en su artículo 30 y la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, en sus artículos 8 y 9, las subvenciones que se concedan de acuerdo con estas bases normativas serán publicadas en el tablón de anuncios del Ayuntamiento y su página web, así como en los medios establecidos para garantizar la transparencia y el acceso a la información pública.

Además, en el caso de que la cuantía de la subvención sea de 3.000 € o superior, también se deberá publicar en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Siempre se respetará lo establecido en la Ley de Protección de Datos Personales, por lo que los datos personales siempre se publicarán disociados.

VI. INTERPRETACIÓN DE LOS DATOS Y NOTA LINGÜÍSTICA

Artículo 20. Nota lingüística.

En el caso de que se detecten contradicciones o incoherencias entre los textos en euskera y castellano, prevalecerá el texto en euskera.

Artículo 21. Interpretación de las bases.

Cualquier duda que pudiera surgir en torno a la interpretación de estas bases será resuelta por el órgano competente para la concesión de la ayuda.

Artículo 22. Normativa complementaria.

Por lo que respecta a todo lo no recogido en esta convocatoria, se estará a lo establecido en la ordenanza reguladora de las subvenciones del Ayuntamiento de Usurbil y en las disposiciones de la Ley 38/2003, reguladora de las subvenciones otorgadas por las administraciones públicas.

ANEXO I

Convocatoria de ayudas para el alquiler de viviendas en el municipio de Usurbil para el año 2021.

1. Objeto y período subvencionable.

El objeto de estas ayudas es contribuir al pago de parte del alquiler de la vivienda que constituirá el domicilio habitual de las personas que realicen la solicitud.

Se respetará lo establecido en el artículo 1 de las bases reguladoras para la concesión de las ayudas al alquiler de viviendas.

La ayuda se tramitará y se concederá conforme a las condiciones establecidas en esta convocatoria y en las normas reguladoras que la rigen.

En lo referente a esta convocatoria anual, los gastos de arrendamiento que tendrán ayudas serán los comprendidos entre el 1 de septiembre de 2019 y el 31 de diciembre de 2020.

2. Partida y criterios para la provisión de fondos del presupuesto y reparto de ayudas.

El importe total de las ayudas que se concederán en esta convocatoria será de 30.000 euros, con cargo de la partida 1.6000.481.151.00.01.2021 de los Presupuestos Generales del Ayuntamiento de Usurbil para 2021.

Los criterios básicos para la concesión de las ayudas serán los determinados en las bases reguladoras. El criterio principal será el siguiente:

— A cada persona beneficiaria se le asignará la cantidad máxima de subvención que figura en la tabla de la convocatoria anual.

– Eskarien zenbateko osoak dagokion aurrekontuko partidan esleitutako zenbatekoa gainditzen bada, ondorengo doitzea egingo da: lehenik zenbateko hori alokairu gastuaren % 20ko dirulaguntza jasoko dutenen artean banatuko da proportzionalki (gehienez % 10 arte). Ondoren, beharrezkoa bada, gainditutako zenbatekoa alokairu gastuaren % 30eko dirulaguntza jasoko dutenen artean banatuko da proportzionalki (gehienez % 10 arte). Jarraian, alokairu gastuaren % 40ko dirulaguntza jasoko dutenekin egingo da eta, azkenik % 50 jasoko dutenekin.

Emandako laguntza guztien batura ezingo 30.000 eurokoa baino handiagoa izan.

3. Kopuruak.

Diru-sarrerei dagozkien gehienezko mugak hauek izango dira:

– 28.000,00 euro gordin urtean, bizikidetz-unitatea pertsona bakar batez osatuta baldin badago.

– 35.000,00 euro gordin urtean, bizikidetz-unitatea bi pertsona edo gehiagoz osatuta baldin badago.

Dirulaguntzen zenbatekoak hauek izango dira:

– Pertsona bakarraren kasuan:

– En el caso de que el importe total de las solicitudes supere la cantidad consignada en la partida presupuestaria correspondiente, se podrá proceder al prorrateo de dicha cantidad de la manera siguiente: en primer lugar, entre todas las subvenciones que percibirán ayudas del 20 % del gasto de alquiler (hasta un 10 %). Posteriormente, si es necesario, entre todas las subvenciones que percibirán ayudas del 30 % del gasto de alquiler (hasta un 10 %). A continuación, entre todas las subvenciones que percibirán ayudas del 40 % del gasto de alquiler y, finalmente, con la que percibirán el 50 %.

La suma de todas las ayudas concedidas no podrá ser superior a 30.000 euros.

3. Cantidades.

Los límites máximos correspondientes a los ingresos serán los siguientes:

– 28.000,00 euros brutos al año, si la unidad de convivencia está integrada por una sola persona.

– 35.000,00 euros brutos al año, si la unidad de convivencia está integrada por más de dos personas.

Los importes de las ayudas serán los siguientes:

– Cuando la unidad de convivencia está integrada por una sola persona:

<i>Diru sarrera gordinak eurotan</i>	<i>Alokairu-gastuaren %</i>	<i>Gehienezko dirulaguntza (€)</i>
25.000,01 eta 28.000,00 € bitartean	20	100
22.000,01 eta 25.000,00 € bitartean	30	150
19.000,01 eta 22.000,00 € bitartean	40	200
19.000,00 € arte	50	250

<i>Ingresos brutos en euros</i>	<i>% del gasto de arrendamiento</i>	<i>Máxima ayuda (€)</i>
Entre 25.000,01 y 28.000,00 €	20	100
Entre 22.000,01 y 25.000,00 €	30	150
Entre 19.000,01 y 22.000,00 €	40	200
Hasta 19.000,00 €	50	250

– Bizikidetz-unitatea pertsona batek baino gehiagok osatzen dutenean:

– Cuando la unidad de convivencia está integrada por más de una persona:

<i>Diru sarrera gordinak eurotan</i>	<i>Alokairu-gastuaren %</i>	<i>Gehienezko dirulaguntza (€)</i>
33.000,01 eta 35.000,00 € bitartean	20	100
31.000,01 eta 33.000,00 € bitartean	30	150
28.000,01 eta 31.000,00 € bitartean	40	200
28.000,00 € arte	50	250

<i>Ingresos brutos en euros</i>	<i>% del gasto de arrendamiento</i>	<i>Máxima ayuda (€)</i>
Entre 33.000,01 y 35.000,00 €	20	100
Entre 31.000,01 y 33.000,00 €	30	150
Entre 28.000,01 y 31.000,00 €	40	200
Hasta 28.000,00 €	50	250

Alokairu partekatua denean, onuradun bakoitzari emateko laguntza kalkulatzeko, etxebizitza osoaren hileko errenta zatituko da kontratuko titularren kopuruaren artean.

Diru-laguntza gehienez 250 €-koa izango da bizikidetzak unitate bakoitzeko.

Cuando se trate de un alquiler compartido, la ayuda a conceder a cada persona beneficiaria se calculará dividiendo la renta mensual de la vivienda entre el número de titulares que consten en el contrato.

La subvención máxima por unidad convivencial será de 250 €.